

Arrasate

P R E S S

1887ko
azaroak 14
384. zenb.

Musikari batek izan dezakeen erronka handienari aurre egin eta ia bi orduko opera konposatu du: "Mari Errauskin". Lantzar honen emaitza azaroaren 22an ikusi ahal izango dugu.

Juan Arzamendi *Musikarako bizi*

30 GALDERATAN: IÑAKI TXINTXURRETA • KIROLAK: LEIZURI ARANBARRI
IKUSPEGIA: BIXENTE AZKARATE • IRITZIA: MIREN ARIZMENDIARRIETA

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak

UGARTE

**ALTZARIAK
DEKORAZIOA**

ARROZTEGIA



San Juan, 1 (Gasolindegiaaren parean) • BERGARA • Telefono eta Faxa: 76 54 91

NACEX.S BAG

NACEX.S PACK

NACEX.S BOX

Paketeen garraioa
ziurtatuta zorro
berriekin.



NACEX.S

DOKUMENTU ETA PAKETEEN GARRAIO AZKARRA



Kontrol
informatikorako
NACEX.S sistema



GRUPO
TRANSPORTES

Expres Zerbitzua

Bizkaia Etorbidea, 16 behea
20.500 ARRASATE
79 92 77



900 100 000
Informazio orokorra

<http://www.nacex.com>
Email: nacex@nacex.com

Zahartzaroaren gaineko gogoeta

Gero eta jubilatuta eta pentsionista gehiago dago eta gero eta luzarago bizi dira. Lehen zahartzaroa arazo pertsonala bazen ere, orain arazo publiko bihurtu da.

Ciceronek, 62 urte zituela, heldutasuna goraiatu zuen zahartzaroaren gaineko idazki batean (sasoi hartan, 60 urtetik gorakoak Matusalen bera baino zaharrago hartzen zituzten). Baina "heldutasun" berba ez da egokia; "zahartzaroa" erabili beharko genuke, beste barik, zuzenagoa da eta. Era berean, "hirugarren adina" eta antzeko terminoak soberan daude. "Politto-politto" da adin honi ondoen datorkion esamoldea, bai alderdi fisikoari eta bai adimenari dagokionean ere: polittoago



Bixente Azkarate

ibiltzen gara, polittoago pentsatzen dugu. Eta, inongo zalantza barik, gogorrena zera da: burua bizkortasuna galtzen ari dela konturatzea. Egia da, hala ere, zahartzaroan ez dugula jakinmina galtzen; baina gero eta nekezagoa da jakinmin hori asetzea, ez garelako lehen bezain indartsuak, giza-adimenak ere bere mugak daukalako.

Gaur egun, erakundeek makina-txo bat aukera eskaintzen digute. Alde batetik, jubilazioari buruzko jardunaldiak ditugu. Berauetan planteatzen diren galderak ondokoak dira: "Zer gertatuko da gure jubilazioarekin?" "Har nezake ehun urte?" "Jubilazioa eta erretiroa gauza bera da?" "Noiz egin beharko nuke testamentua?". Bestetik,

hortxe dago saltzaileendako merkatu erakargarri askoa ere: jubilatueendako bidaiak, aseguruak, hirugarren adinekoendako egoitzak. Negozio borobila jubilatuen kontura. Hori bai, aukera horiek aprobetxatzeko, pentsio ederra eduki behar!

Bestalde, denok ikusi dugu agure "gaztearen" irudia iragarkietan. Aspaldiko "Zaharra jakintsua da" esaldiaren lekuan, gaur egun "Zaharra ederra da" eta horrelakoak entzuten dira. Baina zahartzaroa goraiatzen dutenek ez dakite zahartzaroa benetan zer den.

Ba ote dago kontsolamendurik gure bizitzaren azken zati honi aurre egiteko? Bai horixe; eta kontsolamendu ederrena da gainera: oroimena. Azken finean, gogoratzen duguna gara. Horrela ba, etorkizunean pentsatu beharrean -etorkizunik ia ez zaigu geratzen eta-, saia gaitezen bizitzan zehar egindakoa aztertzen, gure bizitzaren zentzua ulertzen. Zaharraren ondasun ederrena: oroimena. ■

"Ba ote dago kontsolamendurik azken zati honi aurre egiteko? Bai horixe, oreimena"

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Olatzora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Maria Agirre. Kazetariak: Iñaxo Zubillaga, Marian Porcel, Pabli Montero. Publizitateak: Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). Administrazioa: Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26). Diseinua: Golo Arana. Kolaboratzaileak: Ander Elveberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Iñaxo Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreumeta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orozengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Uribarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopli, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. Banaketa ardura-duna: Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.300. Logo-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeko kontertutua. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ohartu).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birzikaluan egiten da.

Azala: Golo Arana.

Arrasateko Udalerri laguntza
Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

384. zenbaki honetan


1997ko azaroaren 14an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen	11/12	30 galderatan	29
Irakurlea idazle	6	Txutxumutxuak.....	14/15	Azoka plaza	30/31
Inkesta.....	7	Asteko gaia	17/19	Denborapasak	32
Euren ikuspuntutik	8	Kirolak jokoan	20/23	Ikusi eta entzun	33
Astearen erreposoa.....	9	Kulturaren txokoa	24/25	Fotozaharra	34

Ikuspegia

Bixente Azkarate.....	3
Euren ikuspegitik	
Miren Arizmendiarieta	8
Kirolak jokoan	
Leizuri Aranbarri	16
Kulturaren txokoa	
Ekon musika taldearen lan berria	22
Asteko gaia	
Juanito Arzamendi	17/19

Arrasateko makina bat ekimen musikaletan parte hartu du Juanito Arzamendik. Hile honetan, berriz, bere lehen opera aurkeztuko du.



14

ostirala

■ ZINEA

Smila misterio en la nieve. Alai zineman 7etan eta 10etan.

■ ANTZERKIA AMAIA ANTZOKIAN

Tanttaka taldeak *Shakespeare osoa (gutxi gorabehera)* lana eskainiko du, gaueko 10.30etan, Amaia antzokian. Euskarazko emanaldia. Prezioa 800 pta. eta Gazte Txartelarekin 600 pta.

■ KONTZERTUA OÑATIN

Nuevo catecismo catolico eta *Teen dogs* taldeen kontzertua Oñatiko Verduri hallean gaueko 11etan. Sarrera: 300 pta.

15

larunbata

■ ZINEA

Full monty. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ CORAZON DE ENCINA

Ordubatean brindisa eta Lehendakariaren agurra. 6etan, *Carlos eta Ruben* gitarrara joleen emanaldia. 6.30etan, *Loli eta Chema* akordeoijoleak. 7etan, flamenko eta runbero taldeak. 9.30etan afaria eta dantzaldia.

■ MANIFESTAZIOA

Ejerzitoari desobedentzia eta intsumisioa lemapean Deba Garaiko manifestazioa. Hasiera, Seberon, arratsaldeko 7.30etan. Kakitzat taldeak antolatuta.

■ ANTZERKIA AMAIAN

Tanttaka taldeak *Todo Shakespeare (O casi)* lana eskainiko du Amaia antzokian, gaueko 10.30etan. Gaztelaniazko emanaldia.

16

igandea

■ ZINEA

Full monty. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ SAN MILIXANAK 97 ARTISAU FERIA

Leintz Gatzagan V. artisau langintzen feria, goizeko 10.30etatik 2ak arte, eta arratsaldeko 5etatik 8ak arte. Ferian besteak beste zapatak eta eskularruak, jostailuak, pilotak, zura, beira, otargintza euskal keramika, burni forjaketa egongo da ikusgai eta erosgai. Antotzaileak Leintz Gatzagako Udala eta Gatzagako artisauak.

17

astelehena

■ ZINEA

Full monty. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ PINTURA ETA MARRAZKI IKASTAROAREN HASIERA

Amaia Bengoak, arte edertan lizentziatuak, pintura ikastaroa emango du Monterronen. Astegunetan klaseak arratsaldeko 5etatik 8ak arte. Larunbatetan 10etatik ordu-bata arte.

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tel.: 79 83 96 / 79 23 00
Fax: 793412

Pavimentos AGR
ARROZTEGIA



Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak Eskailerak • Armairu enpotatuak eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 77 11 20 • Faxe: 77 11 20

ZUBIZARRETA
TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 79 15 65

TOKION



ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN SALMENTA

Erdiko Kale, 7
Tel.: 79 91 64 • ARRASATE

MARKO-JARTZEAK
ALDEDI



Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84



beinke

18

asteartea

■ **ZINEA**

Full monty. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ **KAFE TERTULIA**

Gaia: Sexualitatea. Arratsaldeko 4etatik 6ak arte, Familia eta Gizarte Heziketarako zentroan.

■ **NORK BERE BURUA ZAINTEKO IKASTAROAREN HASIERA**

Nork bere burua zaintzeko, ikastaroa Yoga Elkarteak Jose Luis Iñarra kalean duen lokalean emango da. Ordutegia arratsaldeko 7.15etatik 8.30ak arte.

19

asteazkena

■ **SANTA ZEZILIA KONTZERTUA**

Arrasate Musikalek Santa Zezilia kontzertua eskainiko du egoitzako areto nagusian arratsaldeko 7.15etan.

20

osteguna

■ **ZINEA**

La boda de mi mejor amigo. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ **KAFE TERTULIA**

Gaia: Sexualitatea. Arratsaldeko 5.30etatik 6ak arte EGIN Emakume taldearen lokalean.

■ **PINTURA ERAKUSKETA**

Feli Arenazaren pintura erakusketa Harresi aretoan azaroaren 21tik abenduaren 8a arte. Ordutegia: 6etatik 8ak arte. Larunbatetan eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte eta 6etatik 8ak arte.

■ **BESAIDEREN MENDI IRTEERA**

Azaroaren 23rako Arabako Orduñako portura eta Gujulira irteera antolatuta da. Izenematea azaroa-

ren 17an, 18an, 19an eta 20an egin behar da arratsaldeko 7.30etatik 8.30ak arte, Besaideren lokalean.

■ **BESAIDEREKIN MENDIKO BIZIKLETA IRTEERA**

Azaroaren 22 eta 23rako Besaidek Mendiko bizikleta irteera antolatuta du. Bardeetara joango dira Besaidekoak. Izenematea azaroaren 18an eta 19an egin behar da arratsaldeko 7.30etatik 8.30ak arte Besaideren egoitzan.




■ **LEINTZ GATZAGAN ARTISAU FERIA**

Sanmillixanak artisau azokaren 5. ekitaldia egingo da domekan Leintz Gatzagan. Aparkalekuekin arazoak egon ez daitezen, aurten aparkaleku berezia jarriko dute Dorletan antolatzaileek. Era berean, Dorletatik herrira hurbiltzeko autobus zerbitzua egongo da. Autobus hori egun osoan etengabe arituko da joan etorriak egiten.

TXOKO TABERNA

Eure berezitasunak pintxo eta mekai gozoak



IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

Soldadutzara joango zinateke?



Karlos Etxenagusia
(38 urte)
Langilea

Ez, gainera, joan behar nuenean ere ez nintzen joan. Orain, egitekotan, intsumiso.




Rafael Carmona
(60 urte)
Pentsioduna

Bai, jakina. Ni marinan bi urtez egon nintzen eta oso ondo, beraz, orain ere joango nintzateke. Soldadutzan gizonak benetako gizon egiten dira.



Estefania Gonzalez
(20 urte)
Ikaslea

Ez, eta seguruenik objektore egingo nintzateke.




Iker Akizu
(21 urte)
Langilea

Ez, soldadutzari ez diot zentzurik aurkitzen. Ni objektore egingo nintzateke.



Mainer Arabaolaza
(17 urte)
Ikaslea

Ez. Zergatik? ez diodala-ko Estatu espainiarrari zerbitzatu nahi. Intsumiso egingo nintzateke.



Jose Diez
(48 urte)
Langilea

Ez, soldadutzara joatea tontokeria da. Ni joan nintzen baina ez nuke errepikatuko.



Imanol Irastorza
(31 urte)
Langilea

Ez, ez du ezertarako balio. Ni intsumiso egingo nintzateke.



Virginia Macho
(59 urte)
Etxekoandrea

Ezta pentsatu ere. Bakoi-tzak eskubidea izan beharko luke aukeratzeko. Soldadutzan denbora galdu besterik ez da egiten.

**OSORIK
PUB**
Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

 **Danona**
KARROZERIA
Konponketak, txapa eta pintura
Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 79 58 06

JUBAR
ATEAK. S.L.
• BURDINEZKO ATEAK
• ETA PERTSIANAK.
• AUTOMATISMOAK.
• KONPONKETAK.
Kataide poligonoa, 18 • ARRASATE
Tel.: 79 10 20 • Fax: 79 08 17

USTEAK USTE

Joan-etorriak

Zutabe honetan agurtu ninduen Beñardok irailaren erdialdean. Lau urtetan pilatutako trasteak batu eta agur Arrasate! pentsatu nuen orduan.

Estatuak urteetan kendu dizkidan diruak jasotzen hasi berria, hilabete batzuek trankil bizitzeko asmotan nengoela, joan den astean ezusteko telefono deia jaso nuen: "Beñardo naiz. Eskaintza on bat jaso dute eta zuzendari lana utzi egingo dut. Zure txanda heldu da".

Horrelaxe heldu naiz aldizkari honetako zuzendari izatera, eta egia esan behar badut nagikeria apur batekin bueltatu naiz. Ama ere penaz, kriada barik geratu dela eta. Eta zuzendari izanik zutabegile izatera. Hemendik aurrera nire lana izango da zutabe hau betetzea, eta iritzia eman behar horrek errespetua eta lotsa apur bat ematen dit. Ahaleginak behintzat egin behar, eta noizean behin zerbait interesgarria idaztea espero dut. Beste batzuetan, berriz, tontokeria galantaz aritu naizela pentsatuko duzue. Azkenik, noizbait ez dut jakingo zertaz idatzi, baina eskerrak momentu horietarako Beñardok lantoki berriko telefono zenbakia utzi didala.

Maria Agirre



Eta zergatik ez bertso eskola bat?

Miren Arizmendiarieta

Beharbada hauxe izango da noizbait inguruko bertsozale batek baino gehiagok bere buruari egingdako galdera. Hainbeste eskola sortu ditugun honetan (pintura, trikitixa...) herrian jorratu gabe dugun alorra, bertso-laritzarena alegia, sortu nahi dugu, euskararen alde tarte berri bat irabaziz.

Zergatik bertso-eskola?

Garai batean, bertso eskolaren abiapuntua izan zen Almeneko eskolaren izpiritua berpiztea nahi dugu; utzitako bide horri, berriz ere, heldu nahi diogu. Almeneko Eskolak ez zuen fruitu makalik eman, horixe ezetz, hortik atera baitziren hain eza-

gunak ditugun bertsolariak: Sarasuatarrak, Arantzazu Loidi, Izarzelai, Goikolea, Iñurategi, Arando, Osa... Laguntzaile edo maisu egokirik ere ez zitzaion falta izan: zenbat lan, animo eskaini ote zieten Goikoleak, Iparragirrek eta Akixu maixuek orduko umei? Hori guzti hori berreskuratzea nahi dugu, eta behingoz, egitura sendo eta iraunkorra eman, sortuko den esko-

lari.

Horretarako, hainbat bertsozale eta euskaltzale biltzen hasi gara, bailarako eskolatan bertso-eskolaren aldeko kanpaina bultzatuz, jarri gara abian. Lerro hauen bidez, bertsozale, bertsolari eta eskolletako ikasle eta irakasleak animatzen ditugu martxan jarri dugun kanpainen parte zuzena har dezaten. Interesatuok tokian-tokiko euskara elkarteetan izango duzue inforazio gehiago.

Beraz, eginkizun honetarako interesa duzuen gaztetxo zein bertsozale bazaitugu, jo itzazu lehenbailehen euskara elkarteetako ateak, izango duzue nork lagundu eta.

Miren Arizmendiarieta, bertsozalea.



Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 79 20 57

astea bi hitzetan

■ **Osasun mentaleko pastoraltza egin zen**

Aita Menni ospitalean osasun mentaleko pastoraltza-ren II. Ihaldunaldia egin zen astelehenean, eta 250 lagunek parte hartu zuten. Hizlarien artean, Jose Antonio Pagola Donostiako Elizbarrutiko bikario nagusia izan zen. Pagolak aipatu zuenez, Eliza eta gizartea kontzientziatu egin behar dira gaixo mentalak normaltasunez integartzeko.

■ **Dolu egunak Corazon de Encinan**

Extremadurarak zentroaren eguna ospatu behar zuten joandako zapatuan, baina Badajozen gertatutako uholdeak direla-eta, Arrasateko zentroak Extremadurako gobernua eskatutako hiru dolu egunak errespetatu zituen. Domekan, hildako-

en aldeko meza egin zen San Andreseko parrokiaren eta zentroaren kanpoaldean dagoen ikurriña masta erdiraino jeitsi zen. Ospakizunak astebukaera honetan egingo dira. Horretaz gain, kaltetuei laguntzeko kontu korrantea zabaldu da Euskadiko Kutxan.

■ **EKI eta harrobiak**

Arrasateko EKI taldea aspalditik dabil harrobiak eragiten dituzten arazo ekologikoei buruz iritzia ematen, eta aste honetan ere idatzia kaleratu du. Eskakizun hau luzatu dio EKIk Udalarari: Arrasaten funtzionamenduan dauden Kanpanzar, Kobate eta San Josepe harrobiak jarraipena egin eta Jaurlaritzak ezarritako neurri zuzentzaileak betearaztea. Bestalde, itxita daudenetan, hau da, Etxaluzen,

Altzurtin eta Santutxon berreskuratze planak hasia.

■ **Juanjo Urrak kotxe istripua**

Pilotari arrasatearrak istripu larria izan zuen orain bi aste Galdakaon. Aurretik zuen kamioiari karga erori eta zauri larriak eragin zizkion buruan. Gurutzetako ospitalera eraman eta ebakuntza egin zioten. Azken egunetan onera egin du bere osasun egoerak baina zainketa berezien gelan jarraitzen du.

■ **Kepa Urrari torturak**

Kepa Urra torturatzegatik launa urteko kartzela zigorra ezarri die Bizkaiko Auzitegi Probintzialak hiru guardia zibili.

Kepa Urra Aretxabaletan bizi zen azkenaldian, baina jaiotzez arrasatearra da, Uribarri auzokoa.



Ez dut beti prostituzioaren munduan lan egin, lehenago lantegi eta kafetegietan lan egin nuen. Gazteagoa nintzenean (orain 60 urte ditut) arazo batekin topo egin nuen: haurdun geratu nintzen. Hori dela eta, lan hau eskaini eta bertan geratu nintzen. Nik San Andreseko Xarpa Kluba zuzentzen dut eta punto. Negozioak bere uneak ditu, batzuetan ondo doa eta beste batzuetan ez hain ondo, baina errentagarria da. (...)


Uste dut egunen batean prostituzioa legala izango dela. Hala ere, normalizazio legala baino lehenago normalizazio soziala etorri behar da. Horrela, mundu guztiak bere eskubideak izango litzuke, segurtasun soziala... (...)

Klubera era guztiko jendea etortzen da: jende zintzoa, ez hain zintzoa... Nik zortea dut nire bezeroak oso jatorrak direlako. Adin guztietan jendea etortzen da baina batez ere 30-40 urtetik gorakoak. (...)

Ezkondutako emakumez aldatzea nahi dutelako etortzen dira, eurenakin aspertuta daudelako. Beharbada esperientzia berriak ere nahi dituzte".

TEO


Extra aldizkaria 22. alea



BIATORISTEN ETXEA FAKULTATE

Gizabidek, irakaskuntzan diharduen fundazioak Eskoriatzako biatoristen etxea erosi du. Aurrerantzean, Mondragon Unibertsitateko Giza Baliabideen fakultatea izango da etxe hori. Gizabidea Fundazioak 300 milioiren truke erosi du biatoristen etxea.

PUB HAIZEA



EXTRA

Deba Garaiko Kazeta

Astearte, ostegun eta larunbatero kioskoetan salgai.

Nafarroa etorbidea, 23 • 218 postakutxatila
Tel.: 79 82 68 • Faxa: 79 43 03



Shakespeare osoa (Gutxi gorabehera)

Todo Shakespeare (0 casi)

— EUSKARAZ —

Azaroak 14 (Ostirala)

10.30etan • 800 pta.

Amaia antzokia

— GAZTELERAZ —

Azaroak 15 (Larunbata)

10.30etan • 800 pta.

Amaia antzokia



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Jose Mari Loiti alkatetzan bete dituen lehen 100 egunen gainean berbetan

Jose Mari Loitik 100 egun bete ditu alkatetzan. Arrasate Telebistak gonbidatuta, alkateak herriaren egoerari buruz hitz egin zuen asteazken gaur. Alkatearekin berbetan saioan. Gobernu taldean egindako lana eta etorkizuneko proiektuak izan zituen aipagai beste gauza batzuen artean.

Jarraian, galdera batzuen gainean Jose Mari Loitik eman dako erantzunak.

HERRITARREN KEZKAK

“Lehenengo hiru hilabeteotan jende asko hurbildu da udaltxera euren arazoak azaltzera. Arrasatearren kezka garrantzitsuenak Uharkape eta hirigintzarekin lotutakoak dira”.

LUR INDUSTRIALA

“Herriarrei hemen gertatzeko aukera eman behar diegu. Oñatin, Aretxababatan... industrialdea dago eta hemen ez. Momentuz lurra erosi dugu eta hilabete batzuk barru zer egin zehaztuta egongo da”.

TRAFIKOA

“Heldu beharreko gaia da. Autoa atarte aurrean aparkatu nahi dugu guztiok. Seguruen grua ipini beharko dira”.

GOBERNU BERRIAREKIN, ALDAKETAK

“Pertsonak aldatzean gauzak aldatu egiten dira, baina



Jose Mari Loitik ATBko Alkatearekin berbetan saioan egin zituen adierazpenak.

oraindik goiz da aldaketa sakinak nabaritzen hasteko. Hori bai, herria lehen baino garbiagoa dagoela ikusten da”.

98rako PROIEKTU GARRANTZITSUENAK

“Hirigintzako obrek izango dute lehentasuna. Hasteko, ziurtzat jo daiteke frontoia egingo dela. Bestalde, Monterronetik kanposanturaino, oinezkoendako zumardia egin nahi dugu. Arrasate Musikalendako lokal egokiena zein izan daitekeen ere aztertzen ari gara. Orain nahiko egoera txarrean daude, eta irtenbidea ospitale zaharrean lokal berria egitea da. Horretaz gain, oinezkoendako eskualdeko ospita-

letik Musakolara irteera bat egingo dugu. Bukatzeko, beste proiektu garrantzitsu bat Uribarrin zentro zibikoa egiteko obrak adjudikatzea izango da. Bertan egongo da Uribarriko jubilatueendako lokala”.

ARMADAREKIN KOLABORAZIOA

Asteazkenean derrigorrezko soldadutza egiteko zozketak egin ziren, eta astean jakin denez, aurrerantzean Espainiako ejerzitoarekin kolaboratu dezake Arrasateko Udalak.

Plenoan hartutako erabakiari jarraituz, azken urteetan Udalak ez dio armadari eman soldadutza joateko sasoian

dauden gazteen zerrenda. Udalaren jokaera epaitegieta iritsi zen, eta iaz Auzitegi Nagusiak Udalararen kontrako epaia kaleratu zuen. Epaia horren arabera, Udalak zerrenda eman behar du. Ondorioz, orduko gobernu taldeak, HBK eta EBak osatutakoak, epaia errekurritu zuen Gorenearn baina Gorenak oraindik ez du epaia eman. Auzitegi Nagusiarena badagoela eta, Jose Mari Loiti datorren urtetik aurrera zerrenda ematearen alde agertu da.

ATBko kamaren aurrean adierazi zuenez, “gazte guztiek aukera berdinak izan behar dituzte, bai soldadutza joan edo intsumisioaren bidea hartu nahi dutenek. Denei lagundu behar zaie”.

SANTAMASAK

Azken urteetan Santamas Komisiñua arduratu da Santamas jaiak antolatzeaz. Egitaraua prestatu eta esku programak eta kartelak atera izan ditu. Aurten, berriz, esku programak eta kartelak Udalak egingo dituela erabaki du gobernu taldeak. Alkateak aipatu zuenez, politizatu egitea daudelako.

Horren ildotik, Santamas Komisiñuek adierazi du ez duela jai programan lan egingo. Dena den, jaiak ospatuko direla esan zuen alkateak.

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Memesa
79 42 22

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

HIES
EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiralean
Setatik 8etara.
Tel.: 79 26 99

Gorenak kaleratutako sententziaren ondoren

Arrasatekoak bake epaitegi izaten jarraituko du

Orain dela urte batzuk bide judizialari heldu zion Udalak herriko bake epaitegia lehen instantziako epaitegi bihurtu asmoz. Hau da, Bergarako epaitegiaren kategoria lortu nahi zuen Arrasatekoak. Epaitegi Gorenak, hala ere, atzera bota du eskakizuna, eta ondorioz, orain arte eskaini duen zerbitzua emango du Arrasateko bake epaitegiak. Beste gauza batzuren artean, ezkontzen, heriotzen eta jaiotzen aktak beteko dira aurreantzean ere.

Astean egin den gobernu batzordeak, bestalde, bake



Laster konponduta egongo da bake epaitegia.

epaitegian egingo diren hobekuntzendako 360.000 pezetako dirulaguntza ematea era-

baki du. Bake epaitegiak erasoak jasan zituen apirilean, eta guztiz hondatuta geratu zen.

Oraingoz ez dago esaterik epaitegiko konponketek zenbateko gastua ekarriko duten, baina 4.500.000koa izango dela uste da, eta Aseguruen Kontsorzioak oraindiko da gehiena. Bestalde, Eusko Jaurlaritzatik ere jasoko da dirulaguntzarik epaitegian egiten ari diren hobekuntzendako.

Bukatzeko esan, aurrera jarraitzen duela bake epailea aukeratzeko prozesuak, eta seguruen hurrengo plenoak bake epaile bat proposatuko du. Azken hitza, berriz, Auzitegi Gorenak izango du.

Deba Garaia Bartzelonako "Agrotour 97" azokan

Astebukaera honetan "Agrotour 97" izeneko azoka egingo da Bartzelonan. Nekazal turismoan dauden aukerak eskaintzea da azokaren helburua, eta Mankomunitateak Deba Garaian dauden aukeren berri

emango du. Gipuzkoako Diputazioak jarriko duen stand-ean izango dira eskura bailara honetako aukeren berri ematen duten informazio orriak.

Bartzelonan egiten den azoka ospe handikoa da.


Joseba Garitonaindia arrasatearra Mexikon atxilotu

Joseba Garitonaindia, Mexikon errefuxiatuta zegoen arrasatearra, asteazkenean atxilotu zuen Mexikoko poliziak. Garitonaindiak 95an aldegin zuen Mexikora. 31 urteko arrasatearrarekin batera, beste hiru

errefuxiatu politiko atxilotu zituen Mexikoko poliziak, eta atzo, ostegunean, eraman behar zituzten Madrilera.

Atxilotetaren inguruan, atzo iluntzean manifestazioa egin behar zen herrian.



OPEL 

Opel Vectra TDI 16V berria.

Potentzia ofiziala 100 zalditakoa bada ere, 119,4 zalditako indarra dauka potentzia neurketa homologatuetan. ZATOZ ETA PROBA EZAZU!

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3 • Eskatu Pabilioia • Tel.: 79 05 86 • ARRASATE

PEUGEOT 106

bat daukazu

1.095.000

Pta.tik aurrera.

Diesel-gasolina motoreak.

60tik 120ra arteko zaldi -potentzia.

Finantzaketa 6.9 TAE-n.



EKOMOBIL

Zaldispe, 2 • ARRASATE
(Ospital ondoan)
Tel.: 79 50 71



PEUGEOT



HORIEK DIRA BEZEROAK, KUKU!

Kuku dendako Angeli sekulako sorpresa eman zioten zapatuan. 57 urte betetzen zituela eta, inguruko dendariak eta eguneroko bezeroak dendan azaldu eta lore

sorta ederra oparitu zioten. Angel Kuku lotsa-lotsa eginda geratu zen, eta gure kamara aurrean jartzeko ere nahikoa lan izan genuen. Zorionak, Angel!

ARUBARA EZKON BIDAIA

Leire Etxebarria arrasatearra eta Ibon Arrillaga lekeitiarra urriaren 11n ezkondu ziren Dorletako santutegian. Bazkalostean, Karibeko itsasoan dagoen Aruba uhartera joan ziren ezkonbidaian. Urte askotarako eta zorte on!



H A U R T X O A K

Arrasate Pasealekua 4,
Tel.: 79 14 90
ARRASATE



**LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE**

Logopedia eta psikologia
tratamendu kliniko eta
hezitzaileak haur eta
helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea
Tel.: 79 79 46 • ARRASATE

**ARRASATE
HOTELA**




Biteri, 1 Tel.: 79 14 16
ARRASATE



MEDIATEKAKO SARIAK

CIMEko mediatekan lehiaketa berezi bat egiten da, eta urriko irabazleen izenak joan den astean jakinarazi ziren. Eugenio Otxoak, Leintz Gatzagako alkateak, hiztegia irabazi du eta Garbiñe Leza eskoriatzarrak CD-ROMa. Lehiaketa horretako erantzuna, jakina, mediatekan bertan aurkitu zuten.



HOTZARI ETA EURIARI AURRE EGITEKO...

“Eragiok mutil aurreko tanboliñari...” dio kanta ezagun batek, eta AEDko lagunek ere kantak dioena egin zuten zapatuan. Umore onean makinatxo bat gaztaina erre zuten eta erretako guztiak jan ziren. Onak egongo zirenen seinale!

Rent a Car

Alkilerreko autoak.

Eta orain

TRAFIC eta EXPRES

M E C A

Tel.: 79 50 12 / 79 52 12

OÑATIKO BARNETEGIKO IKASLEAK

Arrasate Press euskara klaseetarako ikasgai aproposa dela pentsa daiteke. Horrela kontatu ziguten Oñatiko barnetegikoak bisitan etorri zirenean. Klaseetan aldizkaria erabili eta herri telebisten gaia ere lantzen dute. Horrela, normalean ARKOra etortzea.



sofa
leku

a, eme... interiores



centro
hogar
muebles

grupo



Amuebladora Mondragonesa

- a. eme. interiores**, Garibai, 9 ■ ARRASATE ■ Tel.: 79 15 03
- a. eme. sukaldeak**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92
- centro hogar muebles**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92
- sofa leku**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92



Musikarako bizi

Juanito Arzamendik bere lehen opera estreinatuko du

Juan Arzamendiren bizi-tza bi orrialdetan labur-tzea zaila da. Solaski-de aparta da Juanito eta bere curriculum profesionala errepatatzerakoan, oraindik ere bizi egiten ditu iragandako momentuak. Musika munduan lortutako arrakasta eta porrotak anekdota eta pasarte bitxiekin tartekatzen ditu, liburu bat betetzeko beste istorio kontatuz. Dena den, eta istorio guztietan bezala, hasieratik ekin behar.

Itxura dotorea du Juan Arzamendik, jendetza artean berehala bereizten den horietakoa. Akaso berezkoa duen zuzendari planta horrek, akaso Santa Zezilia eguna baino gerotxoago jaio izanak musikarako predestinatu zuten. Musika eta Juanito -horrela deitu izan diote betidanik- binomio banaezina da. Orfeoren seme, ez du bizitza musika barik ulertzen. Hark bezala, adiskidetasuna eta gizabidea musikarekin zabaldu egiten direla sinisten du. Melodia, erritmo eta sinfoniek eman dizkieten momentu ederrez gainera, proiektu herritarretan ipini izan du kemena. Behin jubilatuta, espero ez zuen lanik handi eta zailenari egin dio aurre: opera bat konposatzeari.

MUSIKARIEN DINASTIA

Hamabi laguneko familian jaio-tako zazpi garren semea da Jua-

nito. Bere aurrekoek musika-rekin zerikusi zuzenik ez bazuten ere, txikitatik edan zuen kan-

tu herrikoen iturritik. “Zorte handia izan nuen amarekin. Musikari buruz ezer gutxi zekien baina elegante abesten zituen euskal kantak”. Amaren kanta haiek, David seme nagusiarengan eta artean ume koxkorra zen Juanitoren errotu ziren. Davidek organoa jotzen ikasi zuen, maisutasunez jo arte ikasi ere, eta Juanitok hamabi urterekin ekin zion solfeoaren kriptogramak deskubritzeari. “Arrasateko Bandaren zuzendaria zen Justo Munarrizek eman zizkidan

lehen klaseak. Ondoren pianoa jotzen ikasi nuen Enrique Alvarez-en tutoritzapean, baina nik argi neukan armonia eta konpozizioa menderatu nahi nituela". Aukera estatuko maisu onenak eman zion: Francisco Escudero.

Musikarako joerak bere familian islada nabarmena izan duela esan daiteke. Bost seme-alaba izan eta bostak musikari. "Gure etxean gai bakarra izan dugu jatorduetan: musika. Honek gure harremanak estutu egin ditu eta hori oso pozgarria izan da niretzat".

"NI MONDRAUERA NOA"

Escudero maisuarekin ikasten zebilela, Justo Munarrirek fabore berezia eskatu zion Juanitori. "Justok bihotzeko gaixotasun bat sufritu zuela eta Arrasateko Banda desagertzeko zorian egon zen. Nik ez nuen garai hartan banda batean sartzeko inongo asmorik, baina Justoren deiari erantzunez, Arrasatera etorri nintzen banda neure gain hartzeko". Handik gutxira, Udaltxean bandako zuzendari plaza betetzeko azterketa egin behar zuela esan zioten eta 63an Madrilén egin zituen oposizioak. Hilabete eta erdiko azterketak gainditu ondoren, 189 lagun artean zortzigarren postuan geratu zen. "Edozein hiritako banda garrantzitsu batean lan egiteko aukera izan nuen baina nora joan gura nuen galdetu zidatenean, nik argi eta garbi esan nien: Mondrauera noa, hango bandarekin konprometzua hartuta daukadalako".

HERRIA GIROTZEN

"Gazteek ez duzue ezagutu, baina Mondrauen oso giro polita zegoen- gogoratzen du Juanitok-. Bandakuok, garizuman izan ezik, domekero jotzen genuen plazako kiosko zaharrean". Garai haietan jai egun bakarra domeka zen eta dibe-



timentu bakarra dantzaldia. "Plaza jendez gainezka egoten zen, euria edo elurra egin". Udalak domeketako dantzaldiak kendu zituenean sorpresa galanta hartu zuen Juanitok. "Ez zen diru faltagatik izan, dantzaldiatarako musika taldeak kontratatzen jarraitzen zutelako. Gazteenak modernizatu egin ziren eta lokal partikularretan egin nahi zituzten dantzaldiak. Seberon, azoka jartzen zen tokian, Verduring danzing lokala zabaldu zuten".

Juanito bera ere, musika modernoko talde batean ibili zen: Jai musika taldean. "Gaurko musika modernoa ere gustatzen zait. Gustoko ez dudana bakarra bakalaua da. Erritmo bakan batzuekin musika laukia egiten dute, sentimendu gabekoa".

ABESBATZA, AKADEMIA ETA ORKESTA SÍNFONIKOA

Domeketako dantzaldiak bukatu zirenean, Danok abesbatzarekin eta bandarekin



Goiko argazkian, Juanito Arrasate Musikal akademiako ikasleak entsaiu baten zuzentzen. Behean, Arzamenditarrek orkestan batera jotzen zuten garaian; kontzertu baten ostean ataratako argazkia da. Eskubiko orrialdean, Juanito Arrasateko Bandarekin plazako kioskoan dantzaldia eskaintzen. Plaza jendez gainezka egoten zen domekero.



eman zituen kontzertuak. "Toki askotan egon ginen, eta momentu onenean, banda kendu egin zidaten. Hainbeste lan egin eta gero, min handia egin zidan erabaki hark". Baina Juanitok ez zuen etsi, zirkoan bezalaxe, numero zailagoa egin behar.

Danok elkartearen laguntzarekin Arrasate Musikal eratu zuen 1972an. "Orduan oso jende gutxi zegoen herrian musika zekiena eta zekitenek pianoa bakarrik jotzen zuten. Musikak ematen duen bizipoza zabaltzea zen nire ilusiorik handiena, eta buru belarri sartu nintzen akademian." Akademiaren sorkuntzak aberastasun musikala ekarri zuen Arrasatera. Zerrajerako edifikazioan 360 ikasle hasi ziren lehen ikasturtean. Pozik dago Juanito akademiaren bilakae-raz, baina oraindik ez ditu bere amets guztiak bete. "Buru-gogorra naiz eta nirekin urtebete ibilitako ikasleekin 76an lehen kontzertua egin nuen. Lan asko eginda, orkestra sinfoniko ederra lortu genuen, baina ikasleek maila handia hartzen zutenean, beste orkestra batzuetara joaten ziren. Oraindik pena dut, orkestra finkoa egiteko proposamena beti bertan behera utzi duelako Udalak. Arrasaten orkestra ona eta fin-

koa ez zitea bihotzean dudan arantzatxo da".

MARI ERRAUSKIN OPERA

San Viatorrek proposatuta, Mari Errauskinen ipuina opera bihurtu du bi urteko lanarekin. Erronka izugarria izan da "musikak eskema deskribatu behar duelako" esan du Juanitok. Kantua, konposizioa, orkestra, dena batzen duen lana da opera. Zaila da, baina konpositore batek egin dezakeen lanik politena ere bada". Ez du Juanitok inspirazioaren irudi erromantikorik. "Egunero goizean goiz jaiki eta ilundu arte lan egitea; hori da inspirazioa. Melodia onak lortuz gero, sekulako poza hartzen nuen, baina etsipenezko momentuak ere izan ditut". Operan 140 ikaslek hartzen dute parte "Irakasleek izugarriko lana egin dute umeekin. Azkeneko entsaietan emozionatu egiten nintzen". Azaroaren 22an, berrehun lagun inguruk eskainiko dute operaren estreinua Amaia Antzokian. Hurrengo egunean emanaldia errepikatu egingo da arrasatear guztioi opera ikusteko aukera emateko. Antzokia goraino betetzea da Juanitok egin diezaiokegun omenaldirik politena. ■

Marian Porcel

Aitaren bidea jarraituz

Eduardo Arzamendik aitaren batuta jaso du. Bere anai-arrebek bezala musika ikasi du txikitatik eta orain, aitak bere garaian egin zuen bezala, Arrasateko Bandaren Zuzendaria da. Eduardori bere aitak musikaren aurrean izan duen jarrerari buruz galdetu diogu, Juanitoren figura gertukoaren ikuspegitik osatzeko.

Oso da nekeza niretzat aitak musikagintzan egin duen lana beste barik aztertzen hastea. Ezin alde batera utzi elkarrekin bizitakoa, sentimenduak. Txiki-txikitatik erakutsi zidan musika maitatzen, musikaren edertasuna gozatzen. Aitaren ganean zera esango nuke: langile nekazina da, ez du etsiko bere ekimen eta proiektuak gauzatu arte ikusi arte. Urteen joanean, belaunaldi desberdinetako hamaikatzko mondragoetar ibili da proiektuotan sartuta, musikaren plazerra denona izan dadin. Aitaren ibilbide musikalean, aipatzekoa da Udal Bandako zuzendaria izan zeneko garaia; baita Danok abesbatza, Arrasate Musikal eta orkestra sortu zireneko garaiak ere; eta beste hainbat eta hainbat musika ekitaldi, bere partaidetzaz aurrera atera direnak. Horieta bat, "Mari Errauskin" opera dugu. Musikari dagokionean, bere ezaugarrien artean bi azpimarratuko nituzke: bere melodiei darien malenkonía eta bere konposizioen euskal kutsu sakona. Nire ibilbide profesionalean, finfin lagundu izan dit beti; horregatik, harrotasunez eta ilusio handiz helduko diot heredentzian utzi didan batutari, jakinean batuta hori aitaren ahalegin sendoa- ren lekuko dela.

Eduardo Arzamendi



Futbol jokalaria

LEIZURI ARANBARRI

"Futbolean lehen urtea izanda, asko daukagu ikasteko"

— **Lehen urtea izateko zer moduz taldean?**

— Saikapenean txarto gabilta, baina ni neu gustora nago. Jokatutako ihardunaldietan bi gol bakarrik sartu ditugu baina hasi berriak garenez, bagenekien hori gertatuko zela.

— **Beti gol mordoa jasotzen, gogorra da horrela jokatzea?**

— Oraindik asko ikasi behar dugu. Emaitzagarri ez naiz sekula haserretu. Partiduetan, berriz, batzuetan erreta bukatzen duzu batzuek dena ematen dutelako eta beste batzuek ez.

— **Zuendako futbol zelaian zailena zer da?**

— Zalantza barik, kokapena. Gainera gol asko sartu digute zelaian, ondo kokatuta ez egoteagatik.

— **Entrenamenduetan?**

— Gustora, baina arratsaldeko 8.30etan entrenatzen dugunez neguan gogorra egingo zaigu. Entrenatzailearekin ere ezin gara kexatu.

— **Emakumeak animatzeko zer esango zenuke?**

— Etortzeko, kirol polita da eta. Hasieran egia da gogorra dela, fisikoa dextente lantzen delako, baina beste tala merezi du.




RUGBYA Garagartzan ezin huts egin



Arrasate eta Sestao izango dira nor baino nor zapatuan arratsaldeko 4etan. Arrasatearrek jokatu-tako hiru partiduetatik bakarra irabazi dute. Patxi Gorosabelek zuzentzen duen taldeak gaur arte txarto jokatu ez duen arren, arrasatearrei behar baino gehiago kostatzen zaie puntuak eskuratzea. Beharbada konfidantza falta zaie jokaldiak borobiltzeko, baina denboraldiak aurrera egin ahala, akats hori zuzenduko dela uste du entrenatzaileak.

ESKUBALOIA Talde indartsua aurrean



Arrasate eskubaloia taldeak Euskal Herriko Unibertsitatearen kontra neurtuko ditu indarrak zapatuan, arratsaldeko 5etan, Iturripen. Hirugarren sailkatuak azken aurrekoa izango du aurrean. Arrasatek sistema taktiko aproposa zelairatu beharko du Bizkaiko taldeari aurre egiteko. EHU taldeak ondo erasotzen badu ere, defentsan ez da hain trebea. Arrasatek, beraz, defentsa sendoa kantxaratzeko saiatu beharko du.

SASKIBALOIA Azken sailkatuak aurrez aurre



Saskibaloikoak azken tokian daude eta domekan azken aurrekoa izango dute etsai eguerdiko 12etan Iturripen. Estellak,

Arrasatek bezala, zulotik ateratzeko puntuak behar ditu. Hori dela eta, partidua hasieratik bizia eta lehiatsua izango dela pentsa daiteke.

FUTBOLA Hortzak erakusteko gertu



Horrela zelairatu beharko du Preferrente mailako Mondrak liderraren bisita jasotzeko domekan. Eibarrek gaur arte neurketa bakarra galdu du eta bederratzira irabazi. Kontuan hartuta aurren preferentera igo berria dela, saikapenean betetzen duen tokia aipatzekoa da. Hala ere, talde sendoa osatzeko fitxaje onak egin ditu Eibarrek eta hori igartzen ari da emaitzetan. Jesus Mari Barrutiabegoaren mutilek hiru ihardunaldi darimate garaipena lortu barik. Domekan, arratsaldeko 3.30etan, beste hiru puntu lortzeko lan egin beharko du Mondrak Atxabalpen. Arrasateko taldea, 10 ihardunaldi jokatu direnean, saikapeneko 4. tokian dago 18 punturekin.

FUTBOLA Emakumeek Corella bisitari




Nafarroako Corella taldearen bisita jasoko dute emakumeek domekan, goizeko 11.30etan, Atxabalpen. Mondrako emakumezko taldearendako irabazteko moduko partidua izan daiteke. Neurketa horretarako Mondrak lau baja izango ditu: Arantzazu, Josune, Susana eta Kakun. Zalantzan Jone atezaina dago. Nahiz eta baja hauek izan, Mondrak dakien bezala jokatzen badu ez du arazorik izango aurkaria menperatzeko.

CESAR DIEZ

“New Yorkeko maratoia ezin da hitzez kontatu, bizi egin behar da”

Cesar Diez korrikalariak New Yorkeko maratoian hartu zuen parte bere ametsa errealitate bihurtuz. Hasierako lerroan 32 korrikalari elkartu ziren eta arrasatearrak 4.048. postuan bukatu zuen 3 ordu eta 30 minutuko denbora eginez. Cesar ez zen denbora hobetzera joan, bere helburu bakarra maratoia bizi eta gozatzea zen. “New Yorkeko auzo iskanbilatsuenak zeharkatu genituen, esperientzia zoragarria izan da eta berriro errepikatzeko gertu nago”. Maratoi erraldoi horretan uste zue-na baino gutxiago sofritu du Cesarrek; bukatzera joan zen eta bukatu egin zuen. “30 kilometrorara arte primeran joan nintzen. Kilometro horretatik



42.era berriz, izugarritzko ekaitza hasi zen eta une batzuetan larri ibili nintzen. Azken kilometroetan erreku-peratu eta inolako arazo barik

bukatu nuen lasterketa”. New Yorkeko maratoian denetik ikusi zuela esan du Diezek. “Ibilbide guztia atzeraka korritu zuen gizon bat zegoen; aurpegia estalita zeraman, ez zuelako publizitaterik nahi. Lagun honek 7 ordu eta pikutan bukatu zuen proba. Beste batek hanka bakarra zuen eta muleta eta guzti egiten zuen arineketan. Eta baita itsua zelako beste hiru lagunak laguntzaz parte hartu zuenik ere”. Orain, 47 urteko korrikalariaren buruan Sevillako maratoia dago. Bertara joateko diru laguntza behar du eta hori lortzeko lanean ari da. Laguntza hori bilatzen ari den bitartean, Cesarrek Euskal Herriko kros denboraldian jarraituko du.

Saioa karate eskola dominen bila Usurbilgo txapelketara

14 urte beherakoentzat promoziozko karate txapelketa jokatu da zapatuan Usurbilen. Goizeko 9etan hasiko den proban Saioa karate eskolako 32 karatekek parte hartuko dute, guztira Gipuzkoa osoko 200 neska mutil. Arrasatearrak kumitean eta katetan arituko dira. Joango diren artean hainbat izen aipatu behar: Iban Galan, Aritz Belategi, Mikel Zabarte, Aimar Garcia, Denis Soriano, Laida Ramos, Amaia Ormaetxea, Marta Tijero eta Josune Gonzalez. Iñaki Munoz entrenatzailearen ustez karateka hauek dominaren bat



Arrasateko karatekek dena emango beharko dute Usurbilgo txapelketan.

eskuratzeko txartel ugari dute. Azaroaren 30an, berriz, beste zita garrantzitsu bat izango

dute herriko karatekek Errenderian jokatu den Gipuzkoako Txapelketan.

Igerilariak Eibarko txapelketara

Arrasate igeri taldeko zortzi igerilarik Eibarren antolatuko den txapelketan hartuko dute parte zapatuan goizeko 9.30etan. Proba Gipuzkoako txapelketarako baliogarria izango da. Igerilariak 1.500 metro eta 800 metro izango dituzte aurrean. Arrasateko taldeak Naiara Corcuera, Ander Corcuera, Asier Bidaburu, Jone Etxeberria, Usua Pagoaga, Amaia Rodriguez eta Iban Sastre joango dira.

Bonba taldie Salamancara

Bonba taldiek batzar orokorra egin zuen joan zen ostiralean Monterronen. Beste batzuen artean honako zehaztasunak egin ziren: hemendik aurrera norberak bere autobus txartela hartu beharko du Monte tabernan. Bazkide txartelarekin joan beharko dira txartela jasotzera. Bestalde, Taldie aurkezteko afaria laster egingo dela jakinarazi zuten. Hala ere, data Aitor Lopez Rekartek jarri behar duenez, bere erantzunaren zain daude. Azkenik, azaroaren 23an Realak Salamancan jokatu duen partidura joateko autobusa antolatuko dute. Bi aukera izango dira: zapatuan joanez gero, bazkideentzat prezioa; hotela, bidaia eta sarre-barne, 10.000 pta.; bazkide ez direnentzat 12.500 pta. Domekan joanda, 5.000 pta. edo 7.000 pta. Bihar amaituko da izena emateko eguna.

Laburrak

■ OHARTU BARIK KANTZONTZILOTAN

Fraguel goleko jokalaria batek txandala kendu zuen fraka motzetan jokatzeko baina azpian ez zeukan horrelakorik. Partidua hasi eta bost minutura ohartu zen fraka motzen ordezkantzozilotan jokatzeko zebilela. Hori bai despistea! Nolanahi ere Fraguel golek 7 eta 5 irabazi zion Jey Holigans taldeari.

■ PARTIDU INTERESGARRIAK

Zazpigarren ihardunaldiari begira lau neurketa gomendatuko ditugu. Zapatuan Zaldirarren Koka Juniorrek eta Aldibik jokatu dutena eguerdiko 12etan. Arratsaldeko 7etan, berriz, Aurrera Bolie eta AT Celayaren artekoa. Domekan, goizeko 10etan, Sokoakoak Branka taberna izango du arerio eta, 12etan Pipwhisek Garaje Oscar.



Otsailaren 14-15 astebukaeran bukatuko da lehen fasea. Oraindik hamaika ihardunaldi falta dira. Partidu asko zer gertatuko den jakiteko. Dena dela, talde indartsuak zeintzuk diren igertzen ari da, eta aurten ere susmoak betetzen badira ez da sorpresa handirik izango

Apurka apurka lehen fasea zehazten

Haurdun bazaude LAURA da zure jantzidenda.

Udazkeneko moda gaztea janzteko neurria ez da izango arazoa.

Tailaje zabalena dugu.

Laura



**Erdiko Kale, 30 • ARRASATE
Tel.: 79 05 80**

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Argi Ibili	6	6	0	0	45	10	12
Sokoakoak	6	5	1	0	47	10	11
AC Surcos	6	5	0	1	29	15	10
Pipwhis	6	5	0	1	25	16	10
Tamagotxi	6	5	0	1	20	15	10
Branka Taberna	6	4	1	1	22	15	9
Garaje Oscar	6	4	0	2	23	18	8
Nuebo taberna	6	3	1	2	23	18	7
Ke Oxtias	6	2	2	2	26	15	6
KKjauri	6	3	0	3	13	18	6
Jotakabau	6	2	1	3	14	14	5
Ganbelas	6	2	1	3	13	14	5
Cartonajes Igamo	6	1	1	4	12	26	3
Leya	6	1	1	4	20	27	3
Potrosorri	6	0	2	4	11	22	2
Babajana Sexy	6	1	0	5	14	28	2
Onaniereng	6	0	1	5	10	37	1
Nacex.S	6	0	0	6	9	65	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Orlando Piratas	6	5	1	0	26	9	11
Irati STS	6	5	0	1	31	20	10
Joka Al rey	6	5	0	1	31	20	10
DA Iriztu	6	4	1	1	35	27	9
Zotz	6	4	0	2	23	13	8
Fraguel Gol	6	3	2	1	24	20	8
Betrayer	6	3	1	2	27	16	7
Arrogoi taberna	6	3	0	3	27	22	6
Pepelus	6	3	0	3	24	23	6
Lautherbrunen	6	3	0	3	25	26	6
Rotor de Bolbog.	6	2	0	4	15	14	4
Epeh	6	2	0	4	15	18	4
DKB	6	2	0	4	16	27	4
Jey Holigans	6	2	0	4	19	27	4
Bukanak	6	2	0	4	21	39	4
Komando Alpargat	6	1	1	4	15	24	3
Ainarexia	6	1	0	5	20	28	2
Soberd. de Claro	6	1	0	5	13	35	2

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
At Celaya	6	5	1	0	26	12	11
Koka Juniors	6	5	1	0	37	15	11
Estrella Taberna	6	5	0	1	25	13	10
Naramnja Mek.	6	5	0	1	29	18	10
Totem	6	4	0	2	35	9	8
Aurrera Bolie	6	3	1	2	30	19	7
Aldibi	6	3	1	2	26	16	7
Aldapa Taberna	6	3	0	3	23	25	6
Borrock Roll	6	2	1	3	19	26	5
Los heredia	6	2	1	3	13	18	5
Txeyenex	6	2	1	3	19	22	5
Lorategi	6	2	0	4	22	18	4
Kamasutra	6	1	2	3	19	28	4
Insert Coin	6	2	0	4	19	27	4
Makai	6	2	0	4	16	38	4
EtxeMobel	6	1	1	4	14	26	3
Elisabeth	6	1	0	5	16	34	2
Iluna Taberna	6	1	0	5	11	34	2



NOIZ JAI? Zaldibar txapelketa ez da zubietan jokatuko. Hori dela eta, abenduan bi asteburutan izango dute jai jokalariek. Batetik 6an, 7an eta 8an; bestetik 27an eta 28an. Urtarrilean ere 3tik 6a arte, ez da baloia jokoan jarriko Zaldibarren.

Emaitzak

A taldea

Ke Oxtias 3 - AC Surcos 4
Jotakabau 2 - Leya 3
Sokoakoak 6 - Garaje Oscar 4
Babajana Sexy 2 - Tamagotxi 4
Kkajauri 4 - Branka Taberna 8
Ganbelas 1 - Potrosorri 1
Onaniereng 1 - Nuevo taberna 6
Argi Ibili 17 - Nacex. S 1
Cartonajes Igamo 2 - Pipiwhis 8

B taldea

Pepelus 0 - Orlando Piratas 1
Jey Holigans 5 - Freaguel Gol 7
Komando alpargat 4 - Bukanak 5
Irati STS 6 - Arrogoi taberna 4
Zotz 5 - D. A Iriztu 6
Rotor de Bolbogrado 1 - DKB 3
Epeh 5 - Ainarexia 2
Betrayer 7 - Sobre. De claro 0
Lautherbrunen 2 - Jako al rey 4

D taldea

Estrella taberna 3 - Lorategi 2
Aurrera Bolie 1 - Los heredia 1
Aldapa taberna 5 - Kamasutra 6
Etxe Mobil 3 - Aldibi 3
Iluna Taberna 2 - Insert Coin 4
Makai 5 - AT Celaya 11
Borrock Roll 1 - Koka Juniors 3
Naranja Mekanika 3 - Elisabeth 2
Txeyenex 3 - Totem 2

Aldibi

Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
Tel.: 71 20 02

Hurrengo partiduak

Larunbata azaroak 15

Zaldibar

8.50 Orlando Piratas - Sobredosis de Claro
10.00 Babjana Sexy - Leya
11.00 Irati STS - Fraguel Gol
12.00 Koka Juniors - Aldibi
13.00 Borrock Roll - Iluna Taberna
14.00 AC Surcos - Nacex. S
15.00 Etxe Mobil - Los Heredia
16.00 Nuevo Taberna - Tamagotxi
17.00 Komando alpargat - DA Iriztu
18.00 Pepelus - Lautherbrunen
19.00 Aurrera Bolie - AT Celaya

Iturripe A

11.00 Estrella Taberna - Txeyenex
12.00 Jey Holigans - DKB
13.00 Naranja Mekanika - Makai
14.00 Ke Oxtias - Cartonajes Igamo
15.00 Ainarexia - Arrogoi Taberna
16.00 Argi Ibili - Ganbelas
17.,00 Aldapa taberna - Insert Coin

Iturripe B

13.00 Jotakabau - Potrosorri
14.00 Epeh - Zotz
15.00 Lorategi - Elisabeth
16.00 Jako al rey - Bukanak
17.00 Betrayer - Rotor de bolbogrado

Azaroak 16, Igandea

Zaldibar

9.50 Sokoakoak - Branka taberna
11.00 Totem - Kamasutra
12.00 Pipwhis - Garaje Oscar
13.00 Onaniereng - KKjauri.

Shakespeare umoretsua

Tanttaka antzerki taldearen azken ikuskizuna Amaia antzokian

Antzezlan honetako pertsonaia Shakespeareazaleek inkesta bat egin dute: "Keneth Branah eta Mel Gibsonentzat gidoiak idazten dituen jaun lodikote londondarra al da William Shakespeare?". Euren harridurarako, erantzuna baiezkoa izan da ia aho batez. Arazo tamalgari horri konponbidea emateko eta maisu ingelesaren goi mailako kalitatea ezagutzera emateko, argitaletxea sortzea erabaki dute. Hiru kideek euren liburuak saltzeko edozein gauza egingo lukete. Kasu honean, taularatu. Horixe da antzezlanaren abiapuntua. Gara pena, konplikatuagoa da.

Izenburuak dioen bezala, obra hau Shakespeare haundiaren antologia da; umorez kontatutako antologia bitxia.

Ordu t'erdian, hiru aktorek Joseba Apaolazak, Asier Hormazak eta Niko Lizeagak, maisu ingelesaren 30 obra baino gehiagotik ateratako pasarteak antzeztuko dituzte. Horretarako, aktore bakoitzak 15 pertsonaia antzeztuko ditu. Pentsatuko duzuenek, obraren erritmoa erotzekoa da.

Idea ez da orijinala. Estatu Batuetan 15 urte daramatza karteleran, eta bertan zein Britainia Handian arrakasta handiz. Gakoa umorea da.



Patxi Barco zuzentzen duen taldeak Euskal Herrirako moldatu du jatorrizko gidoia. Bitxikeria bezala esan beharra dago Javier Gurrutxagak obra bera taularatu duela Madrilen,

eta horregatik, bi konpainien artean Estatuko antzokiak "salomonikoki" banatu behar izan dituzte. Bata joaten den lekura ez dute bestea eramaten.

Tanttaka antzerki konpainiak 13 urte daramatza estilo oso ezberdinetako ikuskizunak taularaten. Sonatuenak: "Kontuz, maite zaitut" musikalak edo "Umekeriak" eta "El florido pensil" antzezlanak. Azken honek ehun mila ikusle baino gehiago izan ditu dagoeneko 200 emanaldi baino gehiagotan.

"Shakespeare osoa (gutxi gora behera)" Tanttakaren azken ikuskizuna da eta apirillean estreinatu zen Donostian. Idazle ingeles ospetsuaren antologia kontatzen duen obra oso berezia eta aldrebesa da. Ez literatura ikasleendako pentsatua, antzerki jolas ero bat sortu nahi izan dute.

Hala ere, protagonisten ahotan "ikusleak ohartuko dira gai horien guztien gainean idazteko apartekoa behar zuela izan autoreak; badakigu, gainera, gure antzezlanak ikusi dutenetako batzuk gero Shakespeareren testuak irakurtzera jo dutela".

Baten prezioan hiru: Tarte barregarria igaro, Shakespeareren lanaren ikuspegi zabala jaso, eta gutxi balitz, autore klasikoa promozionatu. Zita, Amaia antzokian, gaueko 22:30etan. Gaur, ostirala, euskaraz eta bihar, zapatua, gazteleraz. Prezioa: 800 pta.

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 79 22 55 79 14 25

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tel.: 79 20 56

EKON ROCK TALDEA

Abendurako diskoa kalean

Lau kanta bildu zituen lehenbiziko maketa ez zuten argitaratu baina berehala zabaldu zen eskurik esku. Bat-batean, Ekon modako talde bihurtu zen Arrasaten.

Ekonen lehen diskoa izango dena, "Zurrunbilo kaotikoa", Mil a gritos disketeak kaleratuko du, abendua- ren bostean Durangoko azokan aurkeztu ondoren. Aste honetan Elkar-en estudioan harrapatu ditugu nahasketa lanetan.

- Zer moduz ari da geratzen diskoa?

- Arazo dexente izan dugu grabaketan erabili dugun ordenagailuarekin, zati asko euskarri digitalean eraman ditugu eta. Bestela, ondo.

- Zer desberdintasun dago maketa eta diskoaren artean?

- Orain estilo gehiago landu eta sanpler eta aurregrabazio gehiago sartzen ditugu. Zuzeneko emanaldietan ere hori igarri egingo da eta horrek teknologia menperatuz joatea eta materiala erosteko dirua eskatzen du.

- Lehenengo maketatik zenbat kanta sartu dituzue diskoan?

- "Sexu" ia zegoenetan sartu dugu eta "Zurrunbilo kaotikoa" erabat aldatuta. Izenburua ere aldatu egin diogu: "Izarrak tatuaturik". Hasieratik jarraitzen gaituztenei ez genien produkto berdina eskaini nahi.

- Carlos Kreator aukeratu duzue produktore lanetarako. Zergatik? Zer ekarpen egin du?

- Euskadin musika gogorra landu du batez ere. Kitarrei garrantzi handia ematen die eta aurreko grabaketan arazo hori izan genuen: kitarren indar falta. Carlosekin soinu trinkoa lortu dugu, "Kañazalea" da eta.



- Non koka daiteke Ekon euskal musikaren barruan?

- Talde desberdinetatik gatoz eta eragin desberdinak nabariak dira. Estilo askotako zatiak entzun daitezke diskoan. Hori bai, egiten dugunarekin erabat identifikatuta sentitzen gara.

Esperimentatzea gustatzen zaigu. Zuzeneko emanaldietan sanpler gehiago erabili eta materiala erosteko asmoa daukagu. Rock talde baten ohiko irudia aldatu nahi dugu. Jendeari zerbait berria eman nahi diogu etengabe, bestela, gu geu ere aspertu egingo ginateke-eta beti gauza bera egiten. Eta ez bakarrik musika, ikuskizuna bera beti ere erakargarria izan dadin ahale-gintzen gara. Adibidez, gure azken kontzertuan piroteknia erabili genuen. Izugarria izan zen.

- Diskoaren aurkezpenik izango al da Arrasaten?

- Bai, baina aurretik kanpoan landu nahi ditugu zuzeneko emanaldiak eta Arrasatera dena ondo ikasita ekarri, ikuskizun ona eskaini ahal izateko.

aste gazte

■ BEKAK

• 1998-99 ikasturtearen edo 1998ko udan aizerriko unibertsitatean ikasketak burutzeko laguntzak deitu dira. Austria, abenduak 30; Erresuma Batua, abenduak 30; Danimarka, urriak 8; Belgika eta Irlanda urtarrilak 14; Portugal, otsailak 4; Alemania, urtarrilak 13; Frantzia, martxoak 6.

■ LANA

• Sestaoko Udalak liburutegi laguntzaile bat behar du. Epea: azaroak 27.

• Nafarroako Foru Komunitateak injeneru agronomo bat behar du. Epea: azaroak 28.

• Burlatako Udalako arkitekto bat behar da obra eta zerbitzu buru lanak betetzeko. Epea: azaroak 29.

• Burlatan gizarte hezitzailea bat behar dute. Epea: azaroak 29.

• Sestaoko Udalako euskara irakasle laguntzailea eta liburutegiko laguntzailea. Epea: BOEn argitaratu zain.

■ LEHIAKETAK

• Oiartzungo Udalak X. Prosa eta Ipuin Lehiaketa antolatu du. Epea: azaroak 28.

• Oñatiko Burdiñako Kolektiboak antolatuta komiki lehiaketa; txuri beltzean eta ahal dala euskaraz. Epea: abenduak 19.

• Pasaia Hiria XI. Olerki Saria, 15 urtetik gorakoei zuzenduta. Euskaraz nahiz gazteleraz eta gai librean. Epea: abenduak 21.

• Tolosan V. Antonio Maria Labaien Narrazio Laburren Saria. Epea: abenduak 31.

"Taldea baten ohiko irudia aldatu nahi dugu eta jendeari zerbait berria eman etengabe"

Informazio gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65



Euli-txoria

Txori jakin batzuk betidanik ezagunak diren moduan (txepetxa, txantxangorria...), beste txori batzuk zeharo ezezagunak dira. Gaur hizketagai duguna, euli-txoria, horietako bat da.

Txepetxa ez bezala, euli-txoria udazken erdi-erdian bakarrik (irailean eta urrian) egoten da gure artean. Badaude beste batzuk udan ere egoten direnak, Udalatxetik ez oso urruti, zuhaitz zaharretako basoetan. Hauek kabia egin eta txitak sortzen ari dira. Horien artean, arra oso ikusgarria da: Maritxu Kajoiko "trajeen" antzeko jantzi txuribeltz dotorea luzitzen du, eta bere abesti alaiekin emea erakartzen du. Biak elkartzen direnean, zuhaitz zahar on bat bilatzen dute, tamaina egokiko zulo batekin eta kabia egiten dute. Okilen batek abandonaturiko zuloak dituzte gustokoen. Orduan, emea kabia egiten hasten da, bitartean arrak emearendako euliak edo antzeko intsektu hegalaria harrapatzen ditu. Emeak txitak errun

eta zaintzen ditu, arrak bai emearendako eta bai txitendako euliak ekartzen ditu.

Udazkenean agertzen diren euli-txoriak, ordea, ez daude kabi zereginetan. Gortiatzeko denbora pasa zitzaizen aspaldi, Europa zentraletik etorri dira eta negu aurretiko bidaia luzerako indarrak hartu behar dituzte. Bai emeak, gazteak eta arrak ere, jantzi berdina dute, grisa eta zuria. Hauek dira Udaltx inguruetan ikusiko ditugunak.

Irailean edo urrian, udazkeneko baso koloretsuan pasiatzen gaudenean, zuhaitzen artetik doinu monotono errepikakor bat entzungo dugu, halako sip-sip-sip goxo bat. Doinu honek minutu luzeak irun ditzake gelditu barik. Belarriak erne izanez gero, doinua nondik datorren kokatu eta begi zorrotzez zuhaitz adarren artean forma gris-txuri moko-bildu bat ikusiko dugu moko mugitzen. Euli-txoria da.

Lehen esan bezala, hauek bidaiarako prestatzen ari dira. Honela saihesten du eta euli-

txoriak negu gordina. Txepetxa ez bezala hegada bizi eta luzea du eta urruti joan daiteke lurralde beroagoen bila. Nora joango eta... Afrika tropikalera! hegazkinen laguntzarik gabe gainera... ez da nolana hiko txiki humil honek egiten duen bidaia, luzea bezain gogorra eta neketsua. Badaude bidean seko geratzen direnak. Batez ere gazteenak, zaharrenak eta gaisoenak.

Baina gure gaurko protagonistak badu beste ahulezia bat. Kabia egiteko zuhaitz lodiak, zaharrak behar ditu eta zoritxarrez hauek oso eskasak dira, zuhaitz guztiak gazte direnean egurretarako mozten dira-eta. Horregatik, geratzen diren baso zahar gutxietan bakarrik ikus ditzakegu euli-txoriak kabia egiten. Beraz, kabia egiteko etxetxoak ipiniz gero, edo hobe, zuhaitzak zahartu arte utziz gero, mesede ederra egingo diegu eta eurek abesti ederrekin esker-tuko ditute.

Urtzi Mendizabal

Euskerien txokoa

Benetazko ala benetako?

Bietatik zein dauen ondo esango dogu lehenengo. "Benetako" forma ebalibehar dogu zalantza barik. "Benetazko" hori barra-barra zabaldu daue baten batzuk... ez dakit nondik atera dauien.

Beti esan dogu "benetan esaten dotzut", "bene-benetan diotsut", "benetan dabil", hi! benetakue don!... e.a.

eta horren ondorioz, BENETAKO esaten dogu, eta ez "benetazko".

Emoten dau egiaz, egiazko... berbaren antza hartu duela "benetazko" horrek. Baina ez dogu benetaz esaten; bai, oster, egiaz. -KO bakarrik erantsi behar dutezu.

Hor badago beste berba bat: OHIKO ala ohizko; bata edo bestea, bixek ondo baina ohiko hori bizi-bizirik dago iparraldean eta forma hori erabili daue iparraldeko idazleek eta orain hogeitau arte hegoaldeko idazleek. Hortaz, emoten dau OHIKO berba ebalibehar dogula beti, eta ez "ohizko".

Gu geu hasita gagoz OHIKO erabiltzen: ohiko bilkura, ohiko gauzak, ohiko bizimodu, ohi kanpoko ekintzak...

Karmelo Uribarren



Aldibi Autoak, S.A

Zigorrola, 1
ARRASATE
Tel.: 71 20 02
Faxa: 79 65 65

Hemen zure amets guztiak bete daitezke.



Volvo

Auto Suecia, S.A.



Mercedes

Izar Autoak, S.L.



Hyundai

Musakola Autoak, S.L.



Chrysler

Co-Car, S.A.





Mazda

Musakola Autoak, S.A



Nissan

Aldibi Autoak, S.A



Gida 98

Bosgarren urtez **ARKOK GIDA KOMERTZIALA** kaleratuko du bertan Leintz Bailarako telefono erabilienak eskura izan ditzazun.

GIDAn agertzeko nahikoa da negozio bat edukitzea.

Zeure datuak ondo agertzen ez badira, edo GIDari buruz zerbait esateko baduzu deitu **77 08 15** telefonora.



LASTER BISITATUKO ZAITUGU!



LORAMENDI IN

EMAIOZU KOLOREA NEGUARI!!!



Mari Errauskin Opera

JUAN ARZAMENDI



AZAROAK
22 eta 23

AMAIA ANTZOKIA

Arratsaldeko
7.30etan

SARRERAK


- San Viator Ikastolako bi idazkaritzetan (16.30etatik 18.00etara)
- Arrasate Musikalen (17.00etatik 21.00etara)

Astelehenetik ostiralera

Prezioa: 500 pezeta. (Umeek)
750 pezeta. (Helduek)

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

LAGUNTZAILEAK



■ Iñaki Txintxurreta

ARRASATEKO UDALEKO IDAZKARIA



argazkietan, politikoen protagonismotik urruti, baina halabeharrez, saltsa guztien erdian.

1. Zein da zure horoskopoa? Virgo.
2. Sinestuna zara? Ez.
3. Animalia bihurtzekotan? Txori.
4. Zure akats bat/gauza on bat? Pazientzia falta/konstantzia.
5. Zerk lotsarazten zaitu? Erridikuloa egiteak.
6. Amets bat? Karibe-an zehar kruzeroa.
7. Zer kenduko zenuke mundutik? Gosea eta langabezia.
8. Gertakizun historiko bat? Medikuntza arloko hainbat aurkikuntza.
9. Nor miresten duzu? Inor ez.
10. Zeri diozu beldurra? Gaixotasunei.
11. Zeozer garbatzen zaizu? Ez.
12. Negar egin duzun azken aldia? Ez dut gogoratzen.
13. Zer falta zaio Arrasateri? Itsoa.
14. Eta zuri? Gauza asko.
15. Lanbidez aldatzekotan? Notario.
16. Arrasateko gustoko toki bat? Udal-a auzoa.
17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Arropak plantxatu.
18. Zein egunkari irakurtzen duzu? Eskuarteak daukadana.
19. Gustoko janari bat? Arroza.
20. Liburu on bat? *El cuarto protocolo*.
21. Filmerik onena/txarrena? *El informe pelicano / Rambo*.
22. Musika talderik onena/txarrena? *Oskorri/Spice Girls*.
23. Telebistako programarik onena/txarrena? Kultura orokorrekoak/*El gran prix*.
24. Egin dizuten oparirik politena? Denak.
25. Denbora libre zertan pasatzen duzu? Familiarekin eta irakurtzen.
26. Oporretarako toki bat? Menorca.
27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Hautsa kentzea.
28. Gomendio bat? Ez egin besteei zuretzat nahiko ez zenukeen hori.
29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Familiagatik.
30. 200 milioi irabaziz gero? Bidaia-tu.

Beti esan ohi da kostaldeko jendeak zerbaiten hutsunea sentitzen duela itsasotik urrun dagoenean. 31 urteko donostiar honi ere horixe gertatzen zaio Arrasaten bizi denetik. Zuzenbide ikasketak amaitu berri etorri zen Udaleko idazkari lanak betetzera, 1990eko ekainean. Zazpi urte hauetan sarritan ikusiko zenuten plenoetako irudi edo

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE

PEÑAKOBA

Zarugalde, 46
Tel.Faxa: 79 29 93
ARRASATE

Lizaur arkitektoa, 7
Tel.: 78 05 60
OÑATI

IBARRA
Garajea S.L.

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

beatriz

oinetakoak
eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tel.: 79 14 33
ARRASATE

HIES
EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiraletan
5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

MARIANO ANDRADE SIGANO
TAXIA

24 orduko zerbitzua
Hotelak / Aireportua /
Ospitaleak...

Tel.: 79 96 87 • Tfno mobila: (907) 75 23 85
Anboto, 2-4 ezk. ARRASATE

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Garagartzako Zabalbide kalean pisua salgai (Atxabalpe ondoan). 7 milioi. Tel.: 79 84 06. Eguerditan eta gauean.

• Gesalibarren egoera onean dagoen baserria salgai. 3 solairu ditu, bakoitza 20 m²koa. Tel.: 79 97 35. 14.00etatik aurrera.

• Santamainan pisua saltzen da. Tel.: 79 81 15.

• Oñatiko alde zaharreen 3 solairuko etxea salgai. Ortu txiki bat dauka. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko ordu batetik aurrera.

• Arrasaten pisua salgai. Tel.: 79 22 92.

3. Errentan emateko

• Ikasleendako pisua San Andresko Garro Generala kalean. Tel.: 76 21 70.

• Pisua alokatzen da Arrasaten. Tel.: 76 21 70. Gaueko 8etatik aurrera.

• Arrasaten pisua alokatzen da. Nahizanez gero logelak ere alokatzen dira. Tel.: 76 21 70. Arratsaldeko 8etatik aurrera.

4. Errentan hartzeko

• Erdialdea pisua alokatuko nuke urtarria eta otsaila bitartean. Tel.: 79 54 07.

5. Etxe konpartituak

• Gasteizen hiru mutilek laugarren bat behar dute pisua osatzeko. Tel.: (945) 25 10 37. Mikel.

• Arrasaten pisua osatzeko lagun bat behar da. Tel.: 79 27 70. Lan orduetan. Alberto.

• San Andresko Errebueita, 6-5. B-an jendea behar da pisua osatzeko.

• Arrasaten etxea alokatzeko edo konpartitzeko prest nago. Tel.: 71 42 86. Javier.

• Logela bat alokatzen da Arrasateko erdialdean. Tel.: 79 87 59. Tere.

GARAJEAK

9. Errentan emateko

• Kontzeziñon garajea alokatzen da. Tel.: 79 54 07.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

Arrasate Press • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen delitu behar da iragarkia jartzeko.

10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

• Kontzeziñon garajea salgai. Tel.: 79 23 38.

LOKALAK

12. Saldu

• Kalealdean baina Zarugaldetik gertu 100m²ko eta bi solairuko lokala salgai. Tel.: 79 07 24.

14. Errentan emateko

• Bulegoa jartzeko egokituta dagoen lokala errentan ematen da Bolintxo ondoan (Arrasate Pasealekua), 52m². Bi irteera ditu. Tel.: 79 02 52.

15. Errentan hartzeko

• Gasteizko zeramista batek tailerra jartzeko lokala konpartituko luke. Tel.: 71 42 86. Javier.

• Arrasaten lokal komertziala edo industrialia hartuko nuke alokairuan. Tel.: 79 99 82.

LANA

17. Eskaintzak

• Neska gertu edozein lan egiteko. Tel.: 79 99 63.

• Astelehenetik igandera zure umeak zainduko ditugu. Tel.: 79 20 55 edo 79 65 02.

• Esperientziadun emakume eskualduna pertsona nagusiak eta gaisoak zaintzeko gertu. Tel.: 77 04 60. Marga.

• 32 urteko emakumea bulego edo etxeak garbitzeko gertu. Tel.: 77 00 26. Goizetik arratsaldeko 4ak arte.

• Esperientziadun neska gertu goizetan umeak zaintzeko. Tel.: 79 97 81.

• Neska orduka lan egiteko gertu. Tel.: 79 77 91.

• Bergara Au pair. Ingalaterra, Eskozi, Irlanda, Frantzia... *au pair* agentzia batek eskaini dezakeen guztia gehi beste mila lanpostutan aritzeko aukera. Tel.: 76 26 06.

• Esperientziadun neska gertu umeak edo pertsona nagusiak eta etxe lanak egiteko. Tel.: 79 31 44. Miriam. Gaeuz.

18. Eskaerak

• Zabalkunde handiko kosmetika konpainia batek lana eskaintzen du emakume serioendako. Tel.: 21 19 90.

• Bi ume zaintzeko emakume edo neska eskualduna behar da. Tel.: 79 76 56.

• Sukaldaria behar dugu. Tel.: 79 68 57.

• Au pair bat behar da Ingalaterra-ko hegoaldeko Exeter herrian. Tel.: 79 82 09.

19. Denetarik

• Ingeles, gaztelera eta euskarazko itzulpenak egiteko pertsona behar da. Tel.: 79 25 75.

• Orderadorez lanak pasatzen dira. Tel.: 79 79 84.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• 3. mailako injinerutza ikasleak LH eta DBH klase partikularrek emango lituzke. Tel.: 79 43 56.

• Psikologoak OHoko klase partikularrak, ikas teknikak eta laguntza eskolarra emateko gertu. Tel.: 77 17 02 edo 909 44 88 20.

• OHO eta DBHko klase partikularrak ematen dira. Tel.: 77 00 29.

• Injineritzako ikaslea DBH eta LHko klase partikularrek emateko gertu. Tel.: 79 33 39.

• Injineritzako ikasle batek, fisika eta matematika klase partikularrek emango lituzke. BUP eta UBI mailak. Tel.: 79 71 16. Goizez eta gauez.

• Alemanezko eta portugesezko klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko 1etatik aurrera.

• Titulodun neska batek DBHko 3. mailako klase partikularrek emango lituzke erdaraz. Tel.: 79 79 84. Arratsaldeko 3etatik aurrera.

• OHoko klase partikularrek emateko gertu. Tel.: 79 98 68.

MOTORRA

23. Saldu

• Garraiorako karroa salgai. Berria eta prezio interesgarrian. Tel.: 79 63 79.

• Seat Marbella autoa salgai. 25.000 Km. Prezioa: 350.000 pta. Tel.: 79 97 87.

• Selex GR 1.450 fotokopiagailua salgai. Tel.: 77 04 98.

• Ford Courier bat erosiko nuke edo Opel Midi batengatik aldatu. Tel.: (94) 620 36 10. Gaeuz.

DENETARIK

26. Saldu

• Super Nintendo salgai. Lau joku ditu. Tel.: 79 23 35 edo asteburuetan 13 17 28. Mikel.

• 1,35 zm. ko zubi-logela salgai. Tel.: 79 38 16.

• Bulegorako mahaia salgai. 78 x 158 zm. Argia dauka. Tel.: 79 08 23. Iñaki.

• Larruzko kremaileradun txaketa beltza salgai. Berri berria. 40. tailakoa. Prezioa: 15.000 pta. Tel.: 79 35 47. Gaeuz. Edurne.

• Kerosenozko berogailua salgai. Tel.: 79 78 65.

• Bi mandodun Super Nintendo sal-

gai. 7 joku ditu. Prezio ona. Tel.: 77 10 82. Nestor.

• Bigarren eskuko trikiti txikia salgai. Piggini markakoa. Egoera onean. Tel.: 79 08 37.

• Komuneko manpara salgai. Egoera onean dago. 1.50 m. Prezioa: 12.000 pta. Tel.: 79 97 60.

• Conserban Roller karabana salgai. 4-5 lagunendako. Oso egoera onean dago. Tel.: 79 59 71.

• Yorkshire arrazako txakur kumeak salgai. Tel.: 77 04 84. Gaeuz.

• Boxer txakur kumeak salgai. Tel.: 79 92 79. Arratsaldeko Betatik aurrera.

• Oillogorretan ona den setter baten txakur kumeak salgai. Tel.: 81 22 06.

• Egoera onean dagoen logela bat eta komuneko altzariak salgai. Tel.: 79 54 07.

27. Erosi

• Lau pistadun grabagailua erosiko nuke. Tel.: 79 41 97. Koldo.

• Bigarren eskuko pianoa erosiko nuke. Tel.: 936 65 34 85. Maribel.

30. Hartu

• Zure hozkailu zaharra bota behar baduzu gu pasatuko gara jasotzen. Tel.: 79 65 31. Maite.

• Oso behartuta dagoen familia batek butanozko sukaldea eta hozkailu bat behar du. Tel.: 79 37 68.

31. Galdu

• Casio markako erloju beltza galdu nuen Etxezpia eta Larringain kale inguruan (Malvinas). Sarituko da. Tel.: 77 10 20.

• Urriaren 28an estutxe batean zeuden betaurrekoak galdu nituen Olarte kalea inguruan. Tel.: 79 07 24.

• Urbarriko parrokia, Arimazuri edo Eguzki dorre inguruan erlojua galdu nuen. Tel.: 79 39 42.

32. Aurkitu

• Ordulari bat aurkitu nuen Munarreko zubian. Pultseraduna da. Tel.: 79 08 04.

• Irati taberna parean bizikleta bat aurkitu genuen. Zeurea bada, pasa zaitetz bertatik.

• Peugeot auto bateko giltzak aurkitu nituen igandean Munarreko Nebraska tabernaren parean. Udaltzaingoa daude.

35. Denetarik

• Ford Scort markako kotxea lapurtu digute. Gris argia. SS-75 84-T. Urriaren 23an desagertu zen Eskoriatzan. Tel.: 79 37 68.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

• Zumarragara egunero kotxez doan norbaitekin harremanetan jartzea nahi dut. Tel.: 79 98 24. Karlos. Egurdian.

• Astelehenetik ostegunera Leioara joan behar dut autoz. Goizeko 9etarako iristen naiz eta buelta 14.00etan. Bidaia konpartitzea interesatzen bazaizu, deitu 79 48 83 edo 79 65 34 telefonora.

• Euskal heavy-rock talde bat osatzeko baxularia behar dugu. Tel.: (945) 13 67 03. Jokin.

• Arrasateko rock talde batek bateriagile behar du. Punk/Oi! estiloa. Tel.: 79 79 35. Asier.



**ZUZEN ZUZENEAN
FABRIKATIK
ZURE ETXERA**

**SMA
Armeko**

Sukalderako Altzarien Fabrika

Kataide poligonoa • 6. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 79 91 75



■ **Horoskopoa**

- **Aries** Ingelesa egunkarietako gehigarrien bitartez ikastea ez da batere erraza...
- **Taurus** Egundoko gaupasarekin normala da aurpegi hori izatea.
- **Gemini** Zigarro potolo horiek begiak gorritzen dizkizute.
- **Cancer** Zure barre algarak herri osoan entzuten dira.
- **Leo** Belarria telefonoari itsatsita daukazu ala?
- **Virgo** A ze nolako zirriak egiten dizkizun neskatzor horrek!
- **Libra** Zure profesioan meteorito bat dirudizu. Kontuz sabaiarekin.
- **Scorpio** Perez sagutxoak opari bat utziko dizu ohe azpian...
- **Sagitaris** Katarro ederra harrapatu duzu....
- **Capricorn** Esan nizin belarriak garbitzeko. Eeeeentzuuuuun?
- **Aquarius** Buruan, ileak baino ideia gehiago dituzu.
- **Piscis** Munduko mukuzapi guztiekin ere, ez duzu sudurreko jariora etengo.

■ **Gurutzeagrama**

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10					11		
12				13			
14					15	16	
		17					
18			19				

JUAN BAUTISTA AGORRIA


Horizontalak 1.Mikel, Monterongo informatika gelaren arduradunaren abizena. 9. Zatitzez ez dagoena. 10. Zuhaitzaren enborretik ateratzen diren besoetako bakoitza. 11. Trinitrotolueno. 12. Beharrak, zereginak. 14. Oso-tasun. 17. Hegazti batek duen luma-multzoa. 18. Omen. 19. Nortasun Agiri Nazionala.

Bertikalak 1.Jangarria den aza mota bat. 2. Objetoak detektatzeko tresna. 3. Edari alkoholikoen osagarria da. 4. Iretakogain, Nafarroako mendiaren beste izena. 5. Xenona. 6. Hiesaren aurka erabiltzen den botika bat. 7. Ginebra. 8. Antenari dagokiona. 13. Errusiako ibaia, Volgaren adarra. 15. Gizonezko santuen izenaren aurretik jartzen da. 16. Bike.

15. San. 16. U.

Bertikalak: 1. Azalore. 2. Radar. 3. Eianol. 4. Tiratun. 5. Xe. 6. AZT. 7. Gin. 8. Antena. 13. Kama. E. NAN.


Horizontalak: 1. Aretxaga. 9. Zatiezin. 10. Adar. 11. TNT. 12. Lanak. 14. Orotasun. 17. Lumata. 18.



WERU®
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE




PVC-zko ate eta
leihoez gain:
Moketak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, textila...

Martizenean gaueko 9.30etan ATBn

Burua astinduz-ekoak internetetik zehar ibiliko dira

Burua Astinduz saiko inter-
nautek badakite internet sare-
an nabigatzen, eta martitze-
neko saioan sare elektroni-
koan zelan mugitzen diren
ikusiko dugu. Helburua musi-
ka taldeek interneten duten
web orriarekin bat egitea da,
eta era horretan, astero-aste-
ro talde batzuen informazioa
eskainiko da. Horrez gain, tal-
de horien berri zehatzago
jakin nahi dutenentzako, web
orrien zuzenbideak emango
dira. Ikusi egin behar aste
honetan zein talderen berri
ematen diguten.

Beti moduan, elkarrizke-
tarik ere izango da. Martize-
neko saioan, Murtziako M-
clan taldearen berri emango
da. Talde horrek kontzertua
eskaini zuen Jam aretoan
orain dela gutxi. Jakina, kon-
tzentuko pasarte batzuk ere
entzungai izango dira.



Burua astinduz saiko partaideak.

Arrasate Irratia 107.7 FM

ZAPATUA

9:00 **Albistegia**
9:30 **Musika**
10:00-11:00 **Jailarai** haurrentako pro-
grama. Maider Errarte eta Belen Aran-
barrerekin.
11:00-12:00 **Zoroklasikoak**. Musika kla-
sikoak, Eugenio Etxebeste, Iñaki Olai-
zola eta Eusebio Iñarrarekin.
12:00-14:00 **Bi zoro eta zu** magazina,
Mikel Lizarralde eta Edu Abasolorekin.

ASTELEHENA-OSTIRALA

GOIZ-EGUARDIZ

9:00 **Albistegia**
9:30-11:00 **Goizoro**
14:30-16:00 **Bixau orduan**

GAUEZ

Astelehena

21:00-22:00 **Jokoz kanpo**. Kirolak,
Gorka Etxabe eta Rafa Mungiarekin.

Asteartea

22:00-23:00 **Euskal Festa**. Goizane Ara-
na; Maider Errarte eta Garbiñe Pere-
zekin.

Asteazkena

22:00-23:00 **KK2A**. Biteri Ikastetxe
Nagusiko ikasleek eginiko magazina.

Ostirala

22:00-23:00 **Music Box**. Edu Abasolo
eta Pedro Costarekin.
23:00-24:00 **Draxtor**. Makina musika,
Daisy D. eta Betty Boorekin.

■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 14	ASTELEHENA, 17	ASTEARTEA, 18	ASTEAZKENA, 19	OSTEGUNA, 20	OSTIRALA, 21
Astean zehar eskai- nitako programa interesgarrienen errepikapena	13:30 Astebete (Erre- pik.) 20:00/20:30/21:00 Berriak . Patxi Mon- tero.	13:30 Mondrasport . (Errepik.) 20:00/20:30/21:00 Berriak .	13:30 Burua astin- duz . (Errepik.) 20:00/20:30/21:00 Berriak .	13:30 Munduari buel- taka . (Errepik.) 19:15 Kukaratxa Motel . Unai Ipa- rragirre, Betirtze Iñurritegi eta Alaz- ne Ruiz de Munai- nekin. Gaztetxo- endako lehiaketa umoretsua.	13:30 Kukaratxa Motel (Errepik.) 20:00/20:30/21:00 Berriak .
13:30 Kukaratxa Motel	21:30 Mondrasport . Itxaro Zubillaga. Asteburuko kirol jardueraren erre- paso zabala, Zal- dibarko futbito tx- apelketa, gonbida- tuak,... eta lehia- keta astelehene- ro.	21:30 Burua astin- duz . Mc-Lan tal- dearen kontzertua.	21:00 Munduari buel- taka . Maria Agi- rre. Gonbidatua: Andoni Villar. Bidaia: Ekuador.	20:00/20:30/21:00 Berriak .	21:30 Astebete . Pa- txi Montero. Aste- an zehar jasotako berrien laburpena eta gai interesga- rrienen sakontzea.
14:15 Astebete				21:30 Kukaratxa Motel .	
14:45 Alkatearekin berbetan . Patxi Monterok aurkez- tuta.					

Argazki hau gutxienez orain dela hogeita hamar urte atera ziguten. Hori uste du Julio Galartak, argazkiaren ezker aldean ageri denak. Erdikoa, berriz, duela hiru urte hil zen Felixiano Aranzabal da, eta hurrengoa Paulo Zumelaga, hau ere orain dela zazpi urte hildakoa.

Felixianoaren eguna zela eta elkarte ginen ziren hainbat lagun Garmendia edo "Rere" gaitzizenez izendatzen zuten jatetxean. Jatetxe hau Roneoko etxeak dauden lekuan zegoen. Juliok ez du ezagutzen behean ageri den gizona, baina Felixiano Elgetakoa zenez, hango lagun bat izango zela uste du.

Felixiano ezkondu baino zertxobait lehenago egin zuten ospakizun hau, eta betiko moduan ondo baino hobeto pasa ei zuten.

Argazkia: J. M. Lasagabaster.
Informazioa: Julio Galarta.



Etxe Aundi
Hotela** Jatetxea



Santa Luzia egunean menu berezia orkesta eta guzti

Torrauzo, 9 • OÑATI • Tel.: 78 19 56 / 78 32 9

errezeta

**LENGOADUA KARABINERO
SALTSAN ETA LANGOSTINOZ BETEA**

OSAGAIK (4 LAGUNENDAKO)

- 4 lengoadu 400 grkoak (+-)
- Kipula, berakatza, porrua, azenarioa, tomate frijitu.
- Cognac-a, ardo zuria.
- Langostino azalak (karabineroak).
- 16 langostino.
- Arrain fumeta (salda)
- Pistola ogia.

PRESTAKETA

- Lengoaduak garbitu, azala kendu eta xerrak egin.
- Langostinoei azala kendu (ahal bada karabineroak)
- Bildu eta txotxak sartu.
- Baporean egosi 5 minutuz.

Karabinero saltsa

- Barazkiak su geldotan egin eta azalak gehitu.
 - Cognac-arekin flanbeatu, ardoa eta arrain salda gehitu. Pistola ogia eta tomate frijitu apur batekin egosten utzi.
 - Ondu, saltsa turmix eta iragazkitik pasatu eta saltsa prest dago.
- Behin lengoaduak egosita, saltsarekin estali eta barazki frijitu eta egosiekin zerbitzatu.



PARDO estetika zentroa

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLEND ETA FLASH METODOA)
- SOLARIUMA DUTXAREKIN

AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

AURPEGI GARBIKETA: 4.800 pta.

Azaroa eta abendua bitartean aurpegi garbiketa bakoitzeko manikura dohain!

- Drainaketa linfatikoa.
- Erreafirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.

Iparragirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan
☎: 79 52 17 ARRASATE




VENTANAS SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 ▪ Tel.: 79 78 10 ▪ ARRASATE
Ibargarai, 24 ▪ Tel.: 76 12 21 ▪ BERGARA
Rioja, 17 ▪ Tel.: (945) 25 88 92 ▪ GASTEIZ

*Zure ongizatea
babesteko gaude*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**



SALDU OSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTITAKOAK

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUAK.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEA.

Hemen gara!



HONDA



ACCORD



CIVIC 3 ate



CIVIC 5 ate



MITSUBISHI MOTORS

MONTERO



SPACE WAGON

GALANT



MENDIOLA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
Erakusketa eta Salmenta: Tel.: 79 00 11
Mekanika eta Karrozeria: Tel.: 79 75 64



HONDA
AUTOMOBILAK